

Lau hitz lagungarri

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Esaldi lagungarri bat bilatzen zuen, une on eta txarretarako, berarentzat eta maite ditueni emateko. Momentu batzuetan, Joseba Baleztenak kantu batean dioen bezala, “izate soilaren poz biluzia” sentitzen baitzuen, eta bertzetan, zintzurra idortu eta ixten zion angustia.

Poz biluzi horretan zegoenean, inpirazio uneak izaten zituen eta denak zentzua hartzen zuen bere barrenean. Semaforoak berde jartzen ziren bera pasatzeko; hitz aproposak ateratzen zitzaizkion istant aproposetan; argiak eta eguzkiak goxatzen zuten.

Eztarria itotzen sentitzen zuenean, ordea, gosea joaten zitzaion sabeleko korapiloa handitu ahala. Solasak ere lehortzen zitzaizkion, ez zela sekula bukatuko zirudien agonia desesperagarrian.

«Nola liteke halako aldaketa gorputz berean, batzuetan arrazoiarekin eta bertzetan gabe?», galdetzen zuen, eta halako batean, maiz samar gertatzen zitzaion bezala, propio berarentzat idatzia iruditu zitzaion esaldi bat irakurri zuen: “Hau ere pasatuko da”.

Naturala dela pentsatu zuen. Naturan hala da eta gu naturaren parte gara. Bakea eman zion horrek, lasaitasuna. Bai-

na, bestalde, naturaren kontra joan nahi izaten dugula ohartu zen: gauzak betiko nahi ditugu, bizi nahi dugu baina ez zahartu... Alde horretatik, onartzea kostatzen zaigu.

Mezu horrek balio izan zion sufritzen ari zenean hori aldatuko zela jakiteko, eta pozez ezin kabitu zegoenean, are gehiago gozatzeko. Umiltasun lezio bat ere izan zen, “Hau ere pasatuko da” esaldiaren “hau” horretan bera ere sartzen zelako. Gaua eta eguna bezala, biak dira naturalak, biak gara gu eta biak behar ditugu. Hala aurkitu zuen azkena eta lehena zenerako esaldi lagungarria. •

Galdu ala irabazi

**Xabier Mikel
Errekondo**

Hauteskundeek olatu artean bizi gara, surflarien gisan. Orain bat, orain beste bat. Olatuak baino lehertzean sortzen duen aparrak sarritan indar gehiago duen bezala, hauteskundeetako emaitzen zenbakiek baino biharamun aroko akordioek zehazten dute nork osatuko duen gobernu, nork irabaziko eta nork galduko duen.

Bozketa egunera arte irabazle izendatzen dira alderdiak eta biharamunean ere, zenbakiak zenbaki, irabazle. Nekez aitortzen da inor galtzaile. Herria hitzetik hortzera darabilte denek, mer-

kantzia huts lez. Boz gehien lortu duen alderdiak beretzat aldarrikatzen du agintea, nahiz bozen erdira iritsi ez, nahiz ordezkarien erdiak bildu ez. Herritarrek nola mespretxatzen dute matematika bera ere.

Sistema petrala, hauxe: lau urtez behin herri ordezkariak aukeratu, zuzenago esanda... alderdietako ordezkariak. Ordezkarik guztien lehentasunek, baina, lau mailako hierarkia bera betetzen dute, izan ezkerreko zein eskuineko: alderdia, alderdiaren inguruko interesak (enpresak), ordezkaria bera, eta, azkenik, herria eta herritarrek. Na-

go euskal ezkerrearen eta eskuinaren arteko alde lausotzen ari dela, ezkerrek ere alderdia duela lehentasun herritarra baino.

2015ean Gasteizerako udal hauteskundeak Marotok irabazi arren, galtzaile nagusia bilakatu zen. Larrionek Urtaran agintera igo zuen... “*mal menor*”, politikaren aplikazio gordina. Altxa, gasteiztarrek irabazi egin al zuten? Erabaki hark ondoriorik izan al du? 2019an Larrionek galdu ala irabazi egin du? Eta Gasteizek?

Herritarrek beti dira galtzaile, nahiz aurreko lau urteekiko zerbait irabazi. •